

Arabako Batzar Nagusietan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan Estrategikoa

VII. PLANGINTZALDIA (2023-2027)



Arabako Batzar Nagusiak
Juntas Generales de Álava



*Bat eginda!
Juntas!*

Arabako gizartea gero eta elebidunagoa da. Euskararen presentzia gero eta handiagoa da eguneroko bizitzan, lan-munduan eta herritarren eta erakundeen arteko harremanetan, eta administraziook, herritarren zerbitzura gaudenez, eredu izan behar dugu, eta errealitate berrietara egokitu eta eguneratu.

Arabako Batzar Nagusietan, egungo legealdiara arte, euskararen erabilera ordezkari teknikoen eta politikoen konpromisoari esker bermatu da. Egia da orain arte aurrerapausuak eman direla administrazio honetan, baina helburuak eta ekintzak argi markatuko dituen plan bat eduki behar da, aurrerapenak baloratu ahal izateko. Bestela esanda, emaitzak kudeatzeko eta neurtzeko plan propio bat gauzatu behar da ofizialki.

Plan hau garatzeko diagnostikoaren arabera, abiapuntuko egoera ez da hain txarra. Batzar Nagusietan barneratuta baitaude bai hizkuntza-berdintasuna bai hizkuntza eskubideak bermatzea printzipio nagusi modura, haien araudian. Gainera, batzar nagusietako erabiltzaile nagusiak batzarkide taldeak dira, eta gero eta batzarkide gehiagok euskara erabiltzen dute.

Beste gauza bat da pertzepzioa. Nahiz eta langile gehienak euskara hutsez erantzuna emateko prest izan, erakundeak ez dauka definituta zein izan behar den hizkuntz ofizialen erabilera ez ahozko harremanetan, ez idatzizkoetan, ez komunikazio telematikoetan.

Egoera hori aldatzeko borondate teknikoa eta politikoa dago, bai eta langileen eta ordezkari politikoen arteko inplikazio-giroa ere, erakundean lehen normalizazio-plan bat aurrera eramateko.

Plan honek 2 ardatz, 13 arlo, 30 helburu estrategiko eta 29 ekintza aurreikusten ditu.

BISIOA

Plangintzaldiaren amaierarako, Batzar Nagusiek beren lehen euskaren erabilera normalizatzeko plan estrategikoa gauzatu nahi dute. Plan horren bidez, euskararen erabilera finkatu eta hobetu nahi dute, herritarren, erabiltzaileen eta langileen hizkuntza eskubideak bermatzeko asmoz. Hori ziurtatzeaz gain, euskaraz eroso lan egitea bermatu nahi da.

PLAN ESTRATEGIKOAREN EGITURA



Aurkibidea

1. Kudeaketa

- 1.0.1. Euskararen kudeaketa orokorra
- 1.0.2. Lidergoa
- 1.0.3. Langileak
- 1.0.4. Hizkuntza-gaitasuna
- 1.0.5. Euskararen erabilera sustatzeko estrategiaren komunikazioa
- 1.0.6. Hinkuntza-klausulak

2. Erabilera

- 2.1. Zerbitzu-hizkuntza
 - 2.1.1. Irudia
 - 2.1.2. Herritarrekiko harremanak
- 2.2. Lan-hizkuntza
 - 2.2.1. Barne-harremanak
 - 2.2.2. Kanpo-harremanak
 - 2.2.3. Prestakuntza
 - 2.2.4. Baliabide informatikoak
 - 2.2.5. Sortze-hizkuntza

3 Ekintzak



1. KUDEAKETA

Hasierako egoera		Aurreikuspena	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
28.78	86.34	67,3	0.00

Ardatzari dagokion taularen arabera, hasierako egoera ehuneko 28,78koa da, beraz hobetzeko marjina esanguratsua da. Horretarako, euskararen kudeaketa Batzar Nagusietako ohiko kudetaketaren barruan txertatzea beharrezkoa da, arduradun politiko eta teknikoen eta langileen parte-hartze aktiboa baliatuta. Plan honen arlo bakoitzak helburu estrategikoak biltzen ditu.

1.0.1. EUSKARAREN KUDEAKETA OROKORRA

Arloaren balorazio eta aurreikuspen kuantitatiboak:

Hasierako egoera		Aurreikuspena	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
20.00	12.00	57	0.00

Egoera:

Batzar Nagusietan badago euskararen erabilera normalizatzeko plana abiarazteko talde tekniko bat, Lehendakariak koordinatuta.

Egindakoak:

- Diagnostikoa
- Beste erakundetako ordezkariekin bilerak izan, haien planen eta prozeduren berri izateko
- Talde politikoei bidalitako inkesta bat

Indarguneak:

- Modu koordinatuan egiten da lan, bereziki maila teknikoan.
- Ez gara langile asko dituen erakundea.

Zer hobetuak:

- Euskararen kudeaketa ez dago oraindik txertatua Batzar Nagusietako kudeaketa-sistema orokorrean. Funtzionamendu eraginkorrari eta herritarren, langileen eta erabiltzaileen hizkuntza eskubideak bermatzeari begira, helburua da txertatze-maila handitzea.
- Ez dago arduradun politikorik ezta teknikorik ere. Izendatu egin behar dira.

Helburu estrategikoa:

Plan estrategikoa eta kudeaketa planak kudeatzeko sistema egituratuaren eraginkortasuna areagotu eta jarraipen sistematikoa egitea bai planari eta baita hizkuntza irizpideei ere.

Arloaren adierazleak

1.0.1.1 Erakundeak plan estrategiko eta kudeaketa-planak kudeatzeko sistema egituratua osatu du (1.0.1.1)

Hasierako egoera		Aurreikuspena	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
50.00	12.00	100	0.00

1.0.1.2 Plan estrategiko, kudeaketa-plan eta hizkuntza-irizpideen jarraipen sistematikoa egiten da (1.0.1.2)

Hasierako egoera		Aurreikuspena	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
0.00	0.00	50	0.00

1.0.1.3 Erakundeak neurriak hartzen ditu euskararen indarberritzean positiboki eragiteko, bere lan-jardun eta politika publiko guztien diseinuan, garapenean eta jarraipenean (INPAKTUA EUSKARAREN INDARBERRITZEAN). (1.0.1.3)

Hasierako egoera		Aurreikuspena	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
0.00	0.00	20	0.00

1.0.2. LIDERGOA

Arloaren balorazio eta aurreikuspen kuantitatiboak:

Hasierako egoera		Aurreikuspena	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
40.60	30.45	86	0.00

Egoera:

Euskararen talde teknikoaren eta Lehendakaritza- eta Mahaiaren proaktibotasuna nabaritzen dira, plan hau lantzen hasi zenetik, baina nahiz eta parte hartzea bermatuta egon, kontuan hartu behar da inplikazioa pertsonala baino ez dela. Zuzendaritza-taldeak aldatzen badira (gobernu-aldaketa, funtzionarioak aldatzea), ez dago planeko neurriak berrikustea eta bultzatzea bermatzen duen prozedurarik. Zehaztu behar da nortzuk izango diren liderrak.

Egindakoak:

- Talde teknikoaren bilerak
- Mahaian proposamenak aurkeztu
- Talde politikoei euskararen erabilpenari buruzko inkesta bat egin

Indarguneak:

Plan Estrategikoaren bileretako jarrera ona da.

Zer hobetuak:

- Prozesua goitik beherakoa izan behar da.
- Liderrak aukeratu behar dira eta ardura handiagoa eman behar zaie.
- Ardurak zerredatu eta argi eta garbi banatu behar dira (nork, zer egin behar den, noizko, nola...)
- Jarraipenerako prozedura ezarri.

Helburu estrategikoak:

- Plan estrategiko eta kudeaketa-plana kudeatzeko sistema egituratuaren eraginkortasuna areagotu eta parte-hartze aktiboa sustatzea planak barne-hartzen dituen urrats guztietan: diseinuan, garapenean, jarraipenean eta egokitzapenean.
- Arlo bakoitzeko pertsonak izendatzea dagozkien adierazleei buruzko datuak biltzeko.
- Langile guztiei hizkuntza-irizpideak helaraztea eta haien lanpostuan nola aplikatu behar dituzten azaltzea komunikazio eraginkorraren bitartez.
- Batzar Nagusietako arduradun politiko eta teknikoak proaktibotasunez aritzea plan estrategiko eta kudeaketa-planaren kudeaketan.

Arloaren adierazleak

1.0.2.4 Arduradun politiko eta teknikoek jarrera proaktiboa erakusten dute, plan estrategiko eta kudeaketa-planetan finkatutako helburuak bete daitezzen. (1.0.2.4)

Hasierako egoera		Aurreikuspena	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
66.00	17.32	80	0.00

1.0.2.5 Arduradun politiko eta teknikoek parte hartzen dute plan estrategiko eta kudeaketa-planen diseinuan, garapenean eta jarraipenean. (1.0.2.5)

Hasierako egoera		Aurreikuspena	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
50.00	13.12	90	0.00

1.0.2.6 Izendatutako arduradunek dagozkien adierazleen datuak biltzen dituzte, plan estrategiko eta kudeaketa-planetan zehaztutako moduan. (1.0.2.6)

Hasierako egoera		Aurreikuspena	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
0.00	0.00	50	0.00

1.0.3 LANGILEAK

Arloaren balorazio eta aurreikuspen kuantitatiboak:

Hasierako egoera		Aurreikuspena	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
50.73	30.44	72	0.00

Egoera:

- Plan estrategikoa, kudeaketa-plana eta hizkuntza irizpideak oraindik garatu eta onartu gabe daude.
- Langileek ez dute oso argi zeintzuk diren irizpideak, edo zein den euskara arloan erakundearen bilakaera. Erakundeak ez dauka definituta zein izan behar den hizkuntz

ofizialen erabilera ez ahozko harremanetan, ez idatzizkoetan, ez komunikazio telematikoetan.

- Oro har, gaztelaniaz egiten da lan, bai ahozko harremanetan, bai idatzizko testuak egitean.
- Idazki ofizialak ele bitan egiten dira (askotan, itzulpen-zerbitzuaren laguntzarekin).
- Langileak euskaraz hurbiltzen diren herritarrei/erabiltzaileei (batzarkideei eta taldeen langileei) saiatzen dira euskaraz erantzuten bakoitzak dituen gaitasunen arabera.
- Euskara dakiten langileak lankide euskaldunekin euskaraz hitz egiten saiatzen dira.

Egindakoak:

- Euskararen erabilera normalizatzeko plana prestatzen hasi gara.
- Langileek eskura dute oinarrizko hiztegi juridikoa
- “Egunean Behin” jolasaren Arabako Batzar Nagusietako taldea sortu zen.

Indarguneak:

- Langileak elebitasunaren irizpide orokor batzuk betetzen saiatzen dira.
- Langileen motibazioa handia da, bakoitza, bere trebetasunen barruan, euskaraz hitz egiten saiatzen da, eta elkarri laguntzen diote.
- Langileek euskara sustatzeko jardueretan parte hartzeko prest daude (Korrika, Euskaraldia...)

Zer hobetuak:

- Plan estrategikoa eta kudeaketa-plana garatu, onartu eta komunikatzea.
- Ekintza eta hizkuntza-irizpide argiak eta zehatzak ezartzea eta haien berri ematea.
- Langileen pertzepzioa hobetzea, informazioa zabalduz eta planaren helburuetan inplikazioa eta parte-hartzea bilatuz.

Helburu estrategikoak:

- Langileen arteko lan-harremanetako hizkuntz-ohituretan eragiteko dinamika berriak inplementatu.
- Langileengandik hurbilagoa eta eraginkorragoa den hizkuntza-normalizazioaren inguruko komunikazio-politika diseinatu.
- Komunikazio horretan, onartutako plan estrategikoa eta kudeaketa-plana langileei jakinarazi, eta helburuak lortzeko lanabes guztiak haien eskura ipini.
- Hizkuntza-irizpideen inguruko informazio zehatza eman, langileen iritzia aintzat hartuz, plana ezagutu dezaten eta dagozkien betekizunak bete ditzaten.

Arloaren adierazleak

- 1.0.3.7 Langileei ematen zaie informazioa erakundeko plan estrategikoari, kudeaketa-planei eta hizkuntza-irizpideei buruz, eta argi dute beren jardunean zeintzuk bete behar dituzten.
(1.0.3.7)

Hasierako egoera		Aurreikuspena	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
22.66	4.08	75.00	0.00

1.0.3.8 Langileek dagozkien hizkuntza-irizpideak betetzen dituzte (1.0.3.8)

Hasierako egoera		Aurreikuspena	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
72.50	17.40	100	0.00

1.0.3.9 Langileek betetzen dituzte kudeaketa-planearan adostutako eginkizunak (1.0.3.9)

Hasierako egoera		Aurreikuspena	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
57.14	6.86	80.00	0.00

1.0.3.1 Langileek parte hartzen dute kudeaketa-planearan zehaztutako sustapen-ekintzetan 0 (1.0.3.10)

Hasierako egoera		Aurreikuspena	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
35.00	2.10	60	0.00

1.0.3.1 Langileek iritzi positiboa dute euskararen erabilerak erakundean duen bilakaeraz. 1 (1.0.3.11)

Hasierako egoera		Aurreikuspena	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
43.75	0.00	60.00	0.00

1.0.4 HIZKUNTZA-GAITASUNA

Arloaren balorazio eta aurreikuspen kuantitatiboak:

Hasierako egoera		Aurreikuspena	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
34.17	0.00	50	0.00

Egoera

- Langileek hizkuntza-gaitasunari buruz duten pertzepzioa ez da oso altua, ehuneko 37.5ek soilik uste baitute lanpostuko eginkizunak euskaraz egin ditzaketela ahoz eta ehuneko 40k idatziz.
- 15 langileetatik 10ek egiaztatuta dute hizkuntza-eskakizunen bat, eta beste 5ek euskara-ikastaroren bat egin dute urteetan zehar. % 53.33k dagokion HE edo altuagoa dauka, eta beste % 13.33k dagokiona baino beheragoko HE dauka.
- Langile batzuk adierazi dute denbora asko pasa dela hizkuntza-eskakizuna atera zutenetik edo euskara ikastaroak egin zituztenetik, eta euskara erabiltzeko ohitura galdu egin dutela.
- Lehen arreta emateko lanpostuak (erregistroa, zentralita) 3. hizkuntza-eskakizuna duten pertsonen burutzen dituzte, eta zerbitzua euskaraz ematen da erabiltzaileak hala aukeratzen badu. Eskatzen dena beste pertsona batek erantzuten duen kasuetan, ezin da kasu guztietan euskaraz erantzun.
- Erakundeak ez du euskarazko gaitasuna hobetzeko prestakuntzarik eskaintzen, baina langileren batek eskatzen badu, egiten dituen euskara-ikastaroen zenbatekoa ordainduko zaio.

Egindakoa

- IVAPeko ikastaroen eskaintza eskura dute.
- Euskara ikastaroak ordaintzen dira.
- Langileek euskarazko testuak sortzeko badituzte tresnak (itzultzaile neuronala, hiztegi juridikoa, txantilo normalizatuak...) eta itzulpen-zerbitzuaren laguntza jasotzen dute.

Indarguneak

- Langileak euskara erabiltzeko duten jarrera positiboa.

Zer hobetuak

- Langileen euskaraz lan egiteko gaitasuna hobetu behar da, prestakuntza orokorra eta espezifikoa eskainiz.
- Ikastaroak antolatu.
- Langileek euskaraz hitz egin dezaten sustatzea.

- Hizkuntza irizpideak ezagutaraztea eta txantilo normalizatuak sortzea eta horien erabilera erraztea.

Helburu estrategikoak

Langileak euskara lanerako eta harreman pertsonaletarako hizkuntza gisa erabiliz eroso egon daitezen lortzea.

Arloaren adierazleak

1.0.4.12 Langileak gai dira lanpostuaren funtzioak euskaraz ahoz betetzeko (1.0.4.12)

Hasierako egoera		Aurreikuspena	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
37.50	0.00	50.00	0.00

1.0.4.13 Langileak gai dira lanpostuaren funtzioak euskaraz idatziz betetzeko (1.0.4.13)

Hasierako egoera		Aurreikuspena	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
40.00	0.00	50.00	0.00

1.0.4.14 Arduradun politikoak gai dira postuaren funtzioak euskaraz betetzeko (1.0.4.14)

Hasierako egoera		Aurreikuspena	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
25.00	0.00	50.00	0.00

1.0.5. EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO ESTRATEGIAREN KOMUNIKAZIOA

Arloaren balorazio eta aurreikuspen kuantitatiboak:

Hasierako egoera		Aurreikuspena	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
24.90	11.20	85	0.00

Egoera

Hizkuntza-normalizazioaren inguruko informazioa ez dago, beraz, ezin izan da webgunean argitaratu.

Egindakoak

Plana egiten hasi zenean informazioa webgunean eta sare sozialetan argitaratu zen, eta prentsa ohar bat bidali zen komunikabideetara.

Indarguneak

Batzar Nagusiek badaukate Komunikazio plana eta hor sar daiteke euskararen komunikazio-estrategia.

Zer hobetuak

- Langileen karpeta digitalean jarri informazio guztia, onartzen denean.
- Batzarkide taldeen karpeta digitalean informazio guztia jarri, onartzen denean.
- Arabako Batzar Nagusien webgunean toki argi eta irekian jarri hizkuntza normalizazioari dagokion informazio guztia:
 - Onartuko den Plana bera.
 - Hizkuntza-irizpideak, onartzen direnean.
- Hizkuntzaren normalizazioaren esparruan egin izan diren beste esperientzia batzuen berri izan.
- Herritarrei, batzarkide taldeei, Arabako Batzar Nagusietara maiz hurbiltzen direnei (komunikabideak orokorrean, kazetariak eta abar) argi jakinarazi zein diren Batzar Nagusietako Idazkaritza Nagusiaren jarrera eta bisioa hizkuntza normalizazioaren arloan.

Helburu estrategikoak

- Arabako Batzar Nagusietako Idazkaritza Nagusiak jarrera proaktiboa landu, euskararen erabilera sustatzeko duen strategiaren berri komunikatzeko eta hura praktikan jartzeko herritarren eta interes-taldeen (batzarkide taldeak, herritarrak, hornitzaileak...) aurrean.
- Hizkuntza-kudeaketaren arloko beste esperientzia batzuk partekatze ekimenetan parte hartu.

Arloaren adierazleak

1.0.5.15 Erakundeak euskararen erabilera sustatzeko duen estrategia komunikatzen die herritar eta gainerako interes-taldeei. (1.0.5.15)

Hasierako egoera		Aurreikuspena	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
0.00	0.00	80	0.00

1.0.5.16 Erakundeak beste esperientzia batzuk ezagutzeko eta partekatzeke ekimenetan parte hartzen du (1.0.5.16)

Hasierako egoera		Aurreikuspena	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
83.00	11.20	90	0.00

1.0.6. HIZKUNTZA-KLAUSULAK

Arloaren balorazio eta aurreikuspen kuantitatiboak:

Hasierako egoera		Aurreikuspena	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
3.75	2.25	56	0.00

Egoera:

Une honetan, ez dago onartuta hizkuntza-irizpiderik. Beraz, ez dago administrazio kontratuei dagokien hizkuntza-irizpiderik.

Idazkaritza Nagusian Eusko Jaurlaritzak egindako pleguak erabiltzen dira, edozein motatako kontratuetan.

Plegu haietan honela jartzen da:

28.- CONDICIONES ESPECIALES DE EJECUCIÓN.

Estas condiciones especiales de ejecución así como las recogidas en la cláusula 11 de cláusulas específicas del contrato, deberán ser cumplidas tanto por la contratista como por los subcontratistas.

28.1.- Lingüísticas.

28.1.1.- En las relaciones entre el poder adjudicador y la contratista se empleará normalmente el euskera. A los efectos de la ejecución del contrato se entiende por emplear "normalmente el euskera", lo siguiente:

- a) En las comunicaciones verbales, el personal con conocimiento de euskera que en funciones de ejecución del contrato se dirige al poder adjudicador, se expresará inicialmente en esta lengua. Si el poder adjudicador se dirige en euskera a personal adscrito a la ejecución del contrato que no tenga conocimientos suficientes de esta lengua, la empresa encargada de la ejecución habrá de facilitar inmediatamente los medios o personal con capacitación lingüística en euskera necesarios para que la relación con el poder adjudicador derivada de la ejecución del contrato pueda desarrollarse en euskera.
- b) Las comunicaciones escritas se redactarán en euskera y castellano, salvo que emisor y receptor opten por el euskera.

Egindakoak:

- Pleguetan jarri
- Zenbait kontratutan: euskara maila eskatu (zaintza eta segurtasuna) edo dokumentuak ele bitan (prebentzio-zerbitzua)

Indarguneak:

- Batzar Nagusietan barneratuta daude hizkuntza-berdintasuna eta hizkuntza eskubideak bermatzea printzipio nagusi modura (araudia)
- Idazkaritza Nagusiak hizkuntzetako bat berariaz hautatu ezean, enpresa esleipendunak bi hizkuntza ofizialetan bidali behar ditu jakinarazpenak eta era guztietako berriemateak.
- Zerbitzu-enpresa esleipendunak, herritarrei zerbitzuren bat eskaintzean, haien hizkuntza-eskubideak bermatuta eman behar duela agintzen da.

Zer hobetuak:

- Pleguak euskaraz argitaratu.
- Administrazio-kontratuetan zehaztuta dago nork egin behar duen jarraipena, baina ez dago zehaztuta jarraipen hori benetan egiten den konprobatzeko prozedura, ezta ez-betetzeak ondorio juridikorik izango duen ere.

Helburu estrategikoa:

Dagokionean, kontratuetan eta hitzarmenetan hizkuntza-klausulak ezarri eta jarraipenerako sistematika bat zehaztu eta gauzatu.

Arloaren adierazleak

1.0.6.17 Kontratuetan hizkuntza-klausulak txertatzen dira. (1.0.6.17)

Kontratu guztietan, sistematikoki, hizkuntza-klausulak txertatu.

Hasierako egoera		Aurreikuspena	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
25.00	2.25	75	0.00

1.0.6.18 Dirulaguntza eta hitzarmenetan hizkuntza-klausulak txertatzen dira (1.0.6.18)

Hitzarmenetan ere hizkuntza-klausulak txertatu; bereziki, hitzarmen horiek hizkuntzaren ahozko zein idatzizko ageriko erabilera dakarten zerbitzuetan gauzatzen badira.

Hasierako egoera		Aurreikuspena	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
0.00	0.00	50	0.00

1.0.6.19 Jarraipen sistematika egiten zaio kontratueta hizkuntza-klausulen betetze-mailari (1.0.6.19)

- Kontratueta ezartzen diren hizkuntza-klausulen betetze mailaren jarraipenerako sistematika bat zehaztu eta gauzatu prozedura zehatz baten bitartez.
- Prozedura horretan argi definitu ardurak eta ardura bakoitzaren atzean egon behar duen pertsona.
- Jarraipen-sistemeekin batera, ondo definitu neurri zuzentzaileak.

Hasierako egoera		Aurreikuspena	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
0.00	0.00	50	0.00

1.0.6.20 Jarraipen sistematika egiten zaio dirulaguntza eta hitzarmenetako hizkuntza-klausulen betetze-mailari. (1.0.6.20)

Kontratuei buruz esandakoa hitzarmenen esparruan ere aplikatu.

Hasierako egoera		Aurreikuspena	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
0.00	0.00	50	0.00



2. ERABILERA

Hasierako egoera		Aurreikuspena	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
22.17	258.14	66.00	0.00

Batzar Nagusiek herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzea eta euskarazko barne eta kanpo harremanak areagotzea da erronka nagusia.

2.1 . ZERBITZU-HIZKUNTZA

Hasierako egoera		Aurreikuspena	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
70		80	

2.1.1. IRUDIA

Arloaren balorazio eta aurreikuspen kuantitatiboak:

Hasierako egoera		Aurreikuspena	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
85	35.70	90	

Egoera

- Erakundearen errotuluak euskaraz ere badaude, behin-behinekoak normalean ele bitan egiten dira.
- Ikus-entzunezkoak ele bitan daude.
- Argitalpenak eta iragarkiak ele bitan egiten dira, iragarki taulan jarritako dokumentuak edo oharrak ez daude beti ele bitan edo euskaraz.
- Agerraldi instituzionaletan euskara erabiltzen da batzarraren presidentearen arabera, edo instituzioaren ordezkatzaillearen arabera.

- Web-gunea eta sare sozialak euskaraz eta gaztelaniaz daude.
- Bisitak bai gaztelaniaz, bai euskaraz eskaintzen dira.

Egindakoa

Komunikazio guztia ele bitan egiteko oinarriak jarrita daude eta betetzen dira, aspalditik.

Indarguneak

Ele bitan komunikatzeko ohitura errotuta dago. Hizkuntza paisaia ele bitan dago ia osorik.

Zer hobetuak

Agerraldi instituzionaletan, euskararen presentzia eta erabilera areagotu egin behar da

Helburu estrategikoak

Behin-behineko errotulazioan arreta ipintzea gaztelania hutseko errotulurik jar ez dadin

Agerraldi instituzionaletan, euskara eta gaztelaniaren erabilera orekatua bermatzea.

Irudiari dagozkion hizkuntza-irizpideak betetzea, hizkuntza berdintasuna lortzeko.

Arloaren adierazleak

2.1.1.21 Erakundearen errotuluak (finkoak zein behin-behinekoak), eta ikus-entzunezkoak euskaraz daude. (2.1.1.21)

Hasierako egoera

%	Puntuazioa
100	8.40

Aurreikuspena

%	Puntuazioa
100	0.00

2.1.1.22 Erakundearen argitalpen, iragarki eta publizitatea euskaraz daude (2.1.1.22)

Hasierako egoera

%	Puntuazioa
100	8.40

Aurreikuspena

%	Puntuazioa
100	0.00

2.1.1.23 Erakundeak euskara erabiltzen du agerraldi instituzionaletan. (2.1.1.23)

Hasierako egoera

%	Puntuazioa
50	6.30

Aurreikuspena

%	Puntuazioa
70	0.00

2.1.1.24 Erakundeak euskaraz dauzka webgunea eta sare sozialak (2.1.1.24)

Hasierako egoera		Aurreikuspena	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
100	12.60	100	0.00

2.1.2. HERRITARREKIKO HARREMANAK

Arloaren balorazio eta aurreikuspen kuantitatiboak:

Hasierako egoera		Aurreikuspena	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
60.38	101.43	100	0.00

Egoera:

Kontuan hartu behar da ezen, Arabako Batzar Nagusien Administrazioaren kasuan, atal honetan herritarrek aipatzen direnean, ulertu behar dela batzarkide taldeak eta Batzarretako organoak ere barnean direla. Izan ere, horiek dira Batzar Nagusietako Administrazioaren erabiltzaile nagusiak.

Hori dela eta, beste hau ere kontuan hartu behar da: kasu askotan harrera aldeztu aurretik ezagutzen diren pertsonen egiten zaiela. Horrek eragiten du, batzarkide taldeen kasuan bereziki, aurretik ezagutzen den pertsona hori euskal hiztuna ez bada, zuzenean gaztelaniaz egitea lehen agurra.

Batzarkide taldearen arabera, idatzizko dokumentazioaren bolumena azken garaian igo egin da.

Egindakoak

- Galdetegia batzarkide taldeei bidali zaie haien iritzia jasotzeko.
- Herritarrei zuzendutako dokumentuak euskaraz aurkeztu dira, horrela eskatzen dutenean.
- Dokumentu ofizialak beti ele bitan bidaltzen dira.
- Posta elektronikoa euskaraz bidali badute euskaraz erantzuten zaie.

Indarguneak

Langile gehienak prest daude euskara hutsez erantzuna emateko. Gainera, gero eta batzarkide gehiagok euskara erabiltzen dute.

Zer hobetuak

- Irizpideak beharrezkoak dira.
- Eskaintza aktiboa sustatu behar da.

- Bai, euskaraz hitz egiten duten herritarrei, batzarkideei, euskaraz erantzuten zaie telefonoz eta erregistroan. Baina behar duten informazioa edo laguntza beste sail batekoa bada pertsonaren euskal-gaitasunaren arabera erantzuna euskaraz ala gaztelaniaz izaten da.

Helburu estrategikoak

Herritarren hizkuntza eskubideak bermatzea

Hizkuntza berdintasuna lortzea

Arloaren adierazleak

2.1.2.25 Langileek euskaraz jarduteko eskaintza aktiboa egiten diete herritarrei, ahoz; herritarrek hizkuntza aukeratu baino lehen (2.1.2.25)

Hasierako egoera

Aurreikuspena

% Puntuazioa % Puntuazioa

28.67 9.63 60 0.00

2.1.2.26 Eskatzen duten herritarrei euskaraz ematen zaie zerbitzua, ahoz (2.1.2.26)

Hasierako egoera

Aurreikuspena

% Puntuazioa % Puntuazioa

58.57 24.60 100 0.00

2.1.2.27 Herritarrentzako ekitaldiak eta ikastaroak euskaraz eskaintzen dira (2.1.2.27)

Hasierako egoera

Aurreikuspena

% Puntuazioa % Puntuazioa

25.00 8.40 40 0.00

2.1.2.28 Herritarrei euskaraz edota ele bietan bidaltzen zaizkie dokumentuak (2.1.2.28)

Hasierako egoera

Aurreikuspena

% Puntuazioa % Puntuazioa

100.00 25.20 100 0.00

2.1.2.29 Herritarrek euskaraz aurkeztutako dokumentuei edota euskararen aldeko hautua egin duten herritarrei euskaraz erantzuten zaie, idatziz (2.1.2.29)

Hasierako egoera		Aurreikuspena	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
100.00	33.60	100	0.00

2.1.2.30 Herritarrek euskaraz zuzentzen zaizkio erakundeari, ahoz (2.1.2.30)

Hasierako egoera		Aurreikuspena	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
27.49	0.00	40	0.00

2.1.2.31 Herritarrek euskaraz zuzentzen zaizkio erakundeari, idatziz (2.1.2.31)

Hasierako egoera		Aurreikuspena	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
20.00	0.00	40	0.00

2.2 . LAN-HIZKUNTZA

Hasierako egoera		Aurreikuspena	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
23,2		52	

2.2.1 BARNE-HARREMANAK

Arloaren balorazio eta aurreikuspen kuantitatiboak

Hasierako egoera		Aurreikuspena	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
24.44	35.93	50	0.00

Egoera

- Ez dago komunikazio-hizkuntza zehazten duen hizkuntza-irizpiderik.

- Aldez aurretik ezarritako hizkuntza-ohiturek indar handia dute eta badira langile batzuk euskaraz moldatzen ez direnak. Erakundean denbora gutxien daramaten langileek euskaraz komunikatzeko erraztasun handiagoa dute.
- Barruko bilerak oraindik gaztelaniaz egiten dira. Euskara Planaren bilerak euskaraz egiten dira, baita itzulpen zerbitzuarenak ere, noski.

Egindakoak:

Momentuz ez da ezer egin.

Indarguneak:

Azken urteetan hazi egin da euskararen gaitasuna, erabilera eta sentsibilizazioa.

- Itzulpen Zerbitzuarekin lankidetzat estua dago.
- Legelarietako batek (2 dira) euskaraz lan egiteko gaitasuna dauka.
- Herriar batzuek (batzarkide-taldeak) euskaraz jarduten dute neurri batean, eta horrek bultzatu du erakundean euskarak lan-hizkuntza gisa aurrera egitea eta funtzionalitate berriak lortzea.

Zer hobetuak:

- Ez dago komunikazio-hizkuntza zehazten duen hizkuntza-irizpiderik.
- Aldez aurretik ezarritako hizkuntza-ohiturek indar handia dute, eta euskaraz jakin arren ahozko eta idatzizko harremanak gaztelaniaz dira hein handi batean.
- Barruko bilerak gaztelaniaz egiten dira. Arlo honetan aurrera egiteko, ezinbestekoa da langileek euskara-maila nahikoa izatea.

Helburu estrategikoak:

- Euskararen erabilera areagotzea, plangintza eta neurri zehatzen bitartez.
- Hizkuntza irizpideak ezartzea.
- Kontzientziazioa piztea. Hizkuntza-ohitura berriak borondatean oinarritu, prestakuntza soziolinguistikoaren bidez, besteak beste.

Arloaren adierazleak

2.2.1.32 Lan-bilerak euskaraz egiten dira (2.2.1.32)

- Egoera aztertu eta bilerak euskaraz egiteko aukerak berrikusi.
- Bileretako euskararen erabilera areagotzeko protokoloa eta neurriak aurreikusi.

Hasierako egoera		Aurreikuspena	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
2.50	0.74	25.00	0.00

2.2.1.33 Lankideen arteko ahozko lan-harremana euskaraz izaten da (2.2.1.33)

Euskararen ahozko erabilera areagotzeko motibazio-bide berriak aurkitu.

Hasierako egoera		Aurreikuspena	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
12.50	4.59	35.00	0.00

2.2.1.34 Lankideen arteko ahozko harreman ez-formala euskaraz izaten da (2.2.1.34)

Euskararen ahozko erabilera areagotzeko motibazio-bide berriak aurkitu.

Hasierako egoera		Aurreikuspena	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
10.62	0.00	30.00	0.00

2.2.1.35 Erakunde barruko idatzizko lan-komunikazioak euskaraz egiten dira (2.2.1.35)

Arlo honetan, euskararen idatzizko erabilera erabatekoa izateko mekanismoak aurreikusi.

Hasierako egoera		Aurreikuspena	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
81.60	23.99	100	0.00

2.2.1.36 Erakundeak euskaraz gutxienez lantzen ditu ofizioz abiatutako prozedura administratiboen barne izapideak, betiere hartzailea ezaguna ez den kasuetan. (2.2.1.36)

Arlo honetan euskararen presentzia bermatzeko mekanismoak aurreikusi.

Hasierako egoera		Aurreikuspena	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
0.00	0.00	20.00	0.00

2.2.1.37 Xedapen orokorrak euskaraz gutxienez lantzen dira izapidetze-prozesu osoan zehar. (2.2.1.37)

Arlo honetan euskararen presentzia areagotzeko neurriak aurreikusi.

Hasierako egoera		Aurreikuspena	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
10.00	2.20	30.00	0.00

2.2.1.38 Lanari lotutako hizkuntza-paisaia euskaraz dago (2.2.1.38)

Arloka aztertu lanari lotutako hizkuntza-paisaia: errotulu berri bat jartzeko protokoloa definitu eta aldiari-aldiari errebisatu.

Hasierako egoera		Aurreikuspena	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
60.00	4.41	100.	0.00

2.2.2 KANPO-HARREMANAK

Arloaren balorazio eta aurreikuspen kuantitatiboak

Hasierako egoera		Aurreikuspena	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
49.58	48.58	60	0.00

Egoera

Hornitzaileekiko harremanak ingurune soziolinguistikoak baldintzatuta daude. Erdaraz dira nagusiki.

Egindakoak:

Ez da ezer egin.

Indarguneak:

Harremana euskaraz izan dadin eskatu duten administrazioei euskaraz egiten zaie

Zer hobetuak:

- Beste lan-arlo askotan esan den moduan, irizpideak ezarri eta haien segimendua egin beharko litzateke, zorrotz, lehen hitza euskaraz egitea sustatzeko.
- Identifikatu eta zerrendatu harremanak euskaraz izan nahi dituzten erakundeak.
- Gogoeta egitea sektore pribatuko hornitzaile eta erakundeekin euskarazko ahozko harremana sortzeko.

Helburu estrategikoak:

- Hizkuntza-irizpideak eta prozedurak ezartzea sektore publikoko erakundeekin eta enpresa pribatuekin euskarazko harremanak sustatzeko.
- Hornitzaileen inguruko hausnarketa egin, zerbitzua euskaraz eskain dezaketen gehiagorekin kontaktatzeko.

Arloaren adierazleak

2.2.2.39 Sektore publikoko erakundeekin euskaraz egiten da ahozko harremana. (2.2.2.39)

- Arlo honetarako, hizkuntza-irizpideak ezarri.
- Harreman hauetan jarrera proaktiboagoa izateko aukerei buruzko gogoeta egin.

Hasierako egoera		Aurreikuspena	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
20.67	6.08	50.00	0.00

2.2.2.40 Sektore publikoko erakundeei euskaraz edota ele bietan bidaltzen zaizkie dokumentuak. (2.2.2.40)

- Arlo honetarako, hizkuntza-irizpideak ezarri.
- Harreman hauetan jarrera proaktiboagoa izateko aukerei buruzko gogoeta egin.

Hasierako egoera		Aurreikuspena	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
100.00	39.20	100.00	0.00

2.2.2.41 Enpresa pribatuekin euskaraz egiten da ahozko harremana (2.2.2.41)

- Arlo honetarako, hizkuntza-irizpideak ezarri.
- Harreman hauetan jarrera proaktiboagoa izateko aukerei buruzko gogoeta egin.
- Hornitzaileen jarraipena egitea, zeintzuk diren aztertu eta zerbitzua bi hizkuntzetan eskain dezaketenak lokalizatzeko.

Hasierako egoera		Aurreikuspena	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
7.50	1.10	20	0.00

2.2.2.42 Enpresa pribatuei euskaraz edo ele bietan bidaltzen zaizkie dokumentuak. (2.2.2.42)

- Arlo honetarako, hizkuntza-irizpideak ezarri.
- Harreman hauetan jarrera proaktiboagoa izateko aukerei buruzko gogoeta egin.

Hasierako egoera		Aurreikuspena	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
15.00	2.20	50	0.00

2.2.3. PRESTAKUNTZA

Arloaren balorazio eta aurreikuspen kuantitatiboak

Hasierako egoera		Aurreikuspena	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
0.00	0.00	50	0.00

Egoera

Erakundeak ez du prestakuntza eskaintzen, IVAPeko ikastaroak eskuragarri dituzte, eta langileek nahi duten hizkuntzan egin ditzakete.

Era berean, beste erakunde batzuk eskaintako ikastaroak eskatu ditzakete.

Erakundeak eskaini dituen ikastaroak (berdintasun planari, kontratazioari edo prebentzioari lotutak) orain arte gaztelaniaz izan dira.

Egindakoak:

Ikastaroak egiteko dirulanguntzak daude.

Indarguneak:

Badira prestakuntza euskaraz jasotzeko moduan dauden langileak.

Zer hobetuak:

- Prestakuntza-jarduerak martxan jarri beharko lirateke
- Ohikoa bihurtu beharko litzateke euskaraz lan egiten duten langileei prestakuntza, lehen aukera gisa, euskaraz eskaintzea.

Helburu estrategikoak:

- Prestakuntza abian jartzea
- Bereziki lanpostu bakoitzaren funtzioetan oinarrituta, Batzar Nagusiek laguntza eta baliabideak eskaintzea langileek euskaraz lan egin dezaten.

Arloaren adierazleak

2.2.3.43 Erakundeak euskaraz eskaintzen die prestakuntza orokorra langileei. (2.2.3.43)

IVAPekiko eta unibertsitateekiko lankidetza sortu (edo dagoena osatu), eta prestakuntza euskaraz jasotzeko aukerak aurreikusi.

Hasierako egoera		Aurreikuspena	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
0.00	0.00	50.00	0.00

2.2.3.44 Langileek euskaraz jasotzen dute prestakuntza orokorra. (2.2.3.44)

IVAPekiko eta unibertsitateekiko lankidetza sortu (edo dagoena osatu), eta prestakuntza euskaraz jasotzeko aukerak aurreikusi.

Hasierako egoera		Aurreikuspena	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
0.00	0.00	50.00	0.00

2.2.3.45 Hizkuntza-trebakuntza eskaintzen zaie langileei. (2.2.3.45)

Hizkuntza-trebakuntza eskaini

Hasierako egoera		Aurreikuspena	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
0.00	0.00	50.00	0.00

2.2.4. BALIABIDE INFORMATIKOAK

Arloaren balorazio eta aurreikuspen kuantitatiboak

Hasierako egoera		Aurreikuspena	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
19.64	14.44	50	0.00

Egoera

- Aplikazio gehienak gaztelaniaz baino ez daude erabilgarri.

- Langile guztiek eta batzarkide-taldeek erabiltzen duten espedienteak kudeatzeko programa informatikoa euskaraz erabil daiteke.
- Gainerako programa informatikoak gaztelaniaz bakarrik daude.

Karpeta informatikoak, gaztelaniaz.

Egindakoak:

Ez da berariazko lanik egin arlo honetan.

Indarguneak:

- Web bidezko aplikazioak euskaraz erabiltzea badago.
- Informatikan berrikuntzaren bat egon den bakoitzean, euskarazko bertsioa kontuan hartu da.

Zer hobetuak:

Aplikazio informatikoen euskarazko bertsioen erabilera oso urria da. Arlo honetan lanean hasi behar da. Diagnostiko bat egitea.

Helburu estrategikoak:

- Euskarazko aplikazio informatikoen sustapen-lanari ekin.
- Euskarazko aplikazioen erabilerak sor litzakeen arazoak detektatu eta haiek konpontzeko prestakuntza eskaini.
- Proiektu, ekimen edo tresna berrien bat sortzerakoan hizkuntzaren aldagaia modu sistematikoan izan gogoan. (K.I.)

Arloaren adierazleak

2.2.4.46 Erakundeak langileen eskura jartzen ditu euskaraz lan egiteko behar dituzten baliabide informatikoak. (2.2.4.46)

Zein aplikazio dauden euskaraz ikusi, zer behar den.

Hasierako egoera		Aurreikuspena	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
25.00	9.19	50.00	0.00

2.2.4.47 Langileek euskaraz erabiltzen dituzte euskaraz erabilgarri dituzten baliabide informatikoak. (2.2.4.47)

Motibazioa lantzeko prozedurak ezarri.

Hasierako egoera		Aurreikuspena	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
14.29	5.25	50.00	0.00

2.2.5 SORTZE-HIZKUNTZA

Arloaren balorazio eta aurreikuspen kuantitatiboak

Hasierako egoera		Aurreikuspena	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
22.50	22.05	50	0.00

Egoera

Sortze-hizkuntzarena hizkuntza-normalizazioaren zutabe garrantzitsuenetakoa da. Batzar Nagusietan ez da berariazko lanik egin arlo honetan. Euskaraz argitaratzen dena, alderdi politikoen idazkiak alde batera utzita, gehiena Itzulpen Zerbitzutik pasatzen da (prentsa eta protokoloko material asko izan ezik).

Langileek orokorrean ez dituzte dokumentuak euskaraz sortzen, errepikatzen den dokumentazioa (hala nola gai-zerrenda edo akta sinpleak) ele bitan sortzen da, eta normalizatutakotik desberdintzen den dokumentazioa gaztelaniaz sortzen da

Egindakoak:

Esan bezala, ez da berariazko lanik egin, eta euskaraz sortzen diren agiriak (edo ele bitan) langile batzuek euren ekimenez sortzen dituzte, eta gehienetan Itzulpen Zerbitzutik pasatzen dira.

Indarguneak:

Prestakuntza eskainiz gero, eta egun dauden baliabideak kontuan hartuta, ez da zaila, zenbait agiriren kasuan, langile batzuek euskaraz ere sortzea.

Zer hobetuak:

Arlo honetan asko dago egiteko.

Helburu estrategikoak:

- Langileek euskaraz sor dezaten trebatzeko plangintza abiaraztea.
- Agiri gehiago euskaraz sortzea

Arloaren adierazleak

2.2.5.4 Langileek euskaraz sortzen dituzte dokumentuak. (2.2.5.48)

8

Arlo honen jarraipena egiteko sistema definitu eta martxan jarri.

- Maila kuantitatiboan, euskaraz sortzen den testu kopuruaren eboluzioa ikusteko.
- Maila kualitatiboan, arlo honetan dauden eragozpenak identifikatzeko eta horien arabera prestakuntza eskaintzeko, langileek gero eta erosoago lan egin dezaten.

Hasierako egoera

Aurreikuspena

%

Puntuazioa

%

Puntuazioa

22.50

22.05

50.00

0.00

3. EKINTZAK

AR DATZA	AR LOA	HEL BURU ESTRATEGIKOAK	EKINTZAK
1. KUDEAKETA			
1.0.1. Euskararen kudeaketa orokorra	Plan estrategikoak eta kudeaketa planak kudeatzeko sistema egituratuaren eraginkortasuna areagotu eta jarraipen sistematikoa egitea bai planari eta baita hizkuntza irizpideei ere.	- Euskararen kudeaketa txertatu Batzar Nagusietako kudeaketa-sistema orokorrean. - Arduradun politiko eta teknikoak izendatu	
1.0.2. Lidergoa	- Plan estrategiko eta kudeaketa-plana kudeatzeko sistema egituratuaren eraginkortasuna areagotu eta parte-hartze aktiboa sustatzea planak barne-hartzen dituen urrats guztietan; diseinuan, garapenean, jarraipenean eta egokitzapenean. - Arlo bakoitzeko pertsonak izendatzea dagozkien adierazleei buruzko datuak biltzeko. - Langile guztiei hizkuntza-irizpideak helaraztea eta haien lanpostuan nola aplikatu behar dituzten azaltzea komunikazio eraginkorraren bitartez. - Batzar Nagusietako arduradun politiko eta teknikoak proaktibotasunez aritzea plan estrategiko eta kudeaketa-planaren kudeaketan.	- Ardurak zehaztu eta argi eta garbi banatu (nork, zer egin behar den, noizko, nola...) - Jarraipenerako prozedura ezarri.	
1.0.3. Langileak	- Langileen arteko lan-harremanetako hizkuntz-ohituretan eragiteko dinamika berriak inplementatu. - Langileengandik hurbilagoa eta eraginkorragoa den hizkuntza-normalizazioaren inguruko komunikazio-politika diseinatu. - Komunikazio horretan, onartutako plan estrategikoa eta kudeaketa-plana langileei jakinarazi, eta helburuak lortzeko lanabes guztiak haien eskura ipini. - Hizkuntza-irizpideen inguruko informazio zehatza eman, langileen iritzia aintzat hartuz, plana ezagutu dezaten eta dagozkien betekizunak bete ditzaten.	- Plan estrategikoa eta kudeaketa-plana garatu, onartu eta komunikatu. - Ekintza eta hizkuntza-irizpide argiak eta zehatzak ezarri eta haien berri eman. - Langileen artean informazioa zabaldu (emaillez). - Langileen iritzia neurtu, urteko inkestaren bidez.	

1.0.4. Hizkuntza-gaitasuna	Langileak euskara lanerako eta harreman pertsonaletarako hizkuntza gisa erabiliz eroso egon daitezen lortzea.	- Hizkuntza irizpideak ezagutarazi - Langileen euskaraz lan egiteko gaitasuna hobetu, prestakuntza orokorra eta espezifikoak eskainiz
1.0.5. Euskararen erabilera sustatzeko estrategiaren komunikazioa	- Arabako Batzar Nagusietako Idazkaritza Nagusiak jarrera proaktiboa landu, euskararen erabilera sustatzeko duen strategiaren berri komunikatzeko eta hura praktikan jartzeko herritarren eta interes-taldeak (batzarkide taldeak, herritarrak, hornitzaileak...) aurrean. - Hizkuntza-kudeaketaren arloko beste esperientzia batzuk partekatzeko ekimenetan parte hartu.	- Langileen karpeta digitalean jarri informazio guztia, onartzen denean. - Batzarkide taldeen karpeta digitalean informazio guztia jarri, onartzen denean. - Arabako Batzar Nagusien webgunean toki argi eta irekian jarri hizkuntza normalizazioari dagokion informazio guztia: - Onartuko den Plana bera. - Hizkuntza-irizpideak, onartzen direnean. - Hizkuntzaren normalizazioaren esparruan egin izan diren beste esperientzia batzuen berri izan.
1.0.6. Hizkuntza-klausulak	Kontratuetan eta hitzarmenetan hizkuntza-klausulak ezarri eta jarraipenerako sistematika bat zehaztu eta gauzatu.	- Pleguak euskaraz argitaratu. - Administrazio-kontratuetak jarraipena konprobatzeko prozedura jarri eta ez-betetzeen ondorio juridikoak zehaztu.

2. ERABILERA

2.1. Zerbitzu-hizkuntza

	2.1.1. Irudia	- Behin-behineko errotulazioan arreta ipintzea gaztelania hutseko errotulurik jar ez dadin - Agerraldi instituzionaletan, euskara eta gaztelaniaren erabilera orekatua bermatzea. - Irudiari dagozkion hizkuntza-irizpideak betetzea, hizkuntza berdintasuna lortzeko.	Agerraldi instituzionaletan, euskararen presentzia eta erabilera areagotu.
	2.1.2. Herritarrekiko harremanak	- Herritarren hizkuntza eskubideak bermatzea - Hizkuntza berdintasuna lortzea	- Irizpideak zehaztu - Eskaintza aktiboa sustatu

2.2. Lan-hizkuntza

	2.2.1. Barne-harremanak	- Euskararen erabilera areagotzea, plangintza eta neurri zehatzen bitartez. - Hizkuntza irizpideak ezartzea. - Kontzientziazioa piztea. Hizkuntza-ohitura berriak borondatean oinarritu, prestakuntza soziolinguistikoaren bidez, besteak beste.	- Komunikazio-hizkuntzarako irizpideak ezarri - Mintza-talde bat sortu - Inplikatzeko/Konprometitzeko barne-kanpaina martxan jarri
	2.2.2. Kanpo-harremanak	- Hizkuntza-irizpideak eta prozedurak sektore publikoko erakundeekin eta enpresa pribatuekin euskarazko harremanak sustatzeko. - Hornitzaileen inguruko hausnarketa egin, zerbitzua euskaraz eskain dezaketen gehiagorekin kontaktatzeko.	- Irizpideak ezarri eta haien segimendua egin. - Euskaraz erantzuteko (behintzat lehen hitzekin) liburuxka egin - Identifikatu eta zerrendatu harremanak euskaraz izan nahi dituzten erakundeak.
	2.2.3. Prestakuntza	- Prestakuntza abian jartzea - Bereziki lanpostu bakoitzaren funtzioetan oinarrituta, Batzar Nagusiek laguntza eta baliabideak eskaintzea langileek euskaraz lan egin dezaten.	- Prestakuntza-jarduerak martxan jarri - Euskaraz lan egiten duten langileei prestakuntza, lehen aukera gisa, euskaraz eskaini. Nahi duten langileei euskarazko prestakuntza eskaini.
	2.2.4. Baliabide informatikoak	- Euskarazko aplikazio informatikoen sustapen-lanari ekin. - Euskarazko aplikazioen erabilerak sor litzakeen arazoak detektatu eta haiek konpontzeko prestakuntza eskaini - Proiektu, ekimen edo tresna berriren bat sortzerakoan hizkuntzaren aldagaia modu sistematikoan izan gogoan. (K.I.)	Aplikazio informatikoen euskarazko bertsioen erabilerari buruzko diagnostiko bat egitea.
	2.2.5. Sortze-hizkuntza	- Langileek euskaraz sor dezaten trebatzeko plangintza abiaraztea. - Agiri gehiago euskaraz sortzea	Trebatzeko plangintza egin

* Honako taula hau garatu egin da, *Ekintza Plan* bezala erabili ahal izateko. Horretarako, arduradunak, epeak, ebaluatzeko moduak, onuradunak eta helburu zehatzak ezarri dira. Dokumentu honetan sartzeko asmoz, ondorengo orrialdean itsatsi egin da; halere, I. ERANSKIN bezala dator informazio guzti hori era irisgarrian eta irakurtzeko moduan duen Excel dokumentua.

EUSKARA PLAN ESTRATEGIKOA ETA HIZKUNTZA-IRIZPIDEAK: 2025-2027 KUDEAKETA PLANA

[illegible]